

2016ko irailaren 14ean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak lan-kontratu bat amaitutakoan kalte-ordainak jasotzeko orduan **langile finkoen eta ordezkoen eskubidea parekatu** zuen sententzia batek Ondorioz, lan egindako **urte bakoitzeko 20 eguneko** kalte-ordaina aitortu zigun langile guztioi.

Harrezkero, **2 ikasturte hauetan**, hainbat langile izan zarete STEILAS sindikatuko zerbitzu juridikoen laguntzarekin kalte-ordainak jasotzeko eskubide hori **erreklamatu eta zuen aldeko sententziak** jaso dituzuenak (LEP arteko kontratuak, lan-metaketa kontratuak zein ordezkapen kontratuak izan).

Baina Ekainaren 5ean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak berak kaleratu duen beste sententzia batean, **orain dela 2 ikasturte ezarritako doktrina hura bertan-behera utzi du**. Sententzia berri honek diotenaren arabera, finkoek eta ordezkoek kalte-ordain ezberdinak jasotzea legezkoa da (**2016an ezarritako doktrinari kontra ginez**):

Kalte-ordainak jasotzeko eskubidea	2016ko irailaren 14ko sententziaren arabera	2018ko sententziaren ondorioz	
Langile finkoak	20 egun	20 egun	
LEP arteko kontratuen kalte-ordaina	20 egun	3 urte baino gutxiagoko iraupena	3 urte baino gehiagoko iraupena
		0 egun	20 egun
* 2017-2018ko Leku-Aldatze Lehiaketaren ondorioz LEP arteko kontratua galtzen baduzu eta uztaileko esleipenetan ez baduzu berri bat lortzen, bidegabeko kaleratzea izan daiteke (kontratuen antzintasunaren arabera, 33-45 eguneko kalte-ordaina). Zure kasua hau bada, jarri zaitze gurekin kontaktuan informazio gehiago izateko.			
Lan-metaketa kontratuen kalte-ordaina	20 egun	12 egun	
Ordezkapen kontratuen kalte-ordaina	20 egun	0 egun	

Momentu honetatik aurrera, LAL prozesuzaren ondorioz apurtutako LEP arteko kontratuen kalte ordainak bakarrik erreklamatu ahal izango da, hiru urte baino luzeagoak izan diren kasuetan. Izan ere, sententzia berri honek **egoera aldatu** egin du. Bidean dauden erreklamazioak tamalez ezerezean geldituko dira.

Informazio gehiago behar edo nahi izanez gero, **jarri zaitetze gurekin kontaktuan** ohiko bideak erabilita.